

MIKEL ZARATE 25. URTEURRENEAN.*Liburu barria*

Laster dozu argitaraturik, irakurle, liburu ederrean, nik orain erakusgarri modura aurkezten deutsudana –orain 24 urte idatzi neutsan agur esanaz “Mikeli, agur” artikulua hementxe Karmelen, 1979-3 alean–. Ikasle bi txilin nituala hasi nintzan orain hiru urte, eta atzenerako neu besteko idazle bihurtu dira edo bihurtu da –bestea, zorigogorrean istripuak eroan dau-eta, Jainkoak jagon dagiala estu-estu besartean!–

Edonor here, mundutik joan danean, egiteko eta esateko eukan gauza asko burutzeko asti barik joan izan da. Mikeli bere horixe berori gertau jakon, behar bada maila handiagoan.

Izan leiteke inor itaundu leikenik ea zergaitik Mikel Zaraterekin hainbeste xera eta zera, 25. urtean gure artetik joan diran auzokoak ia ahaztuta eukiten doguzanean. Hori dinoanak artez dino, egin bere gehienetan horixe egiten dogu-eta, ez ditugu gogoan izaten etxeko ez diranak –etxekoak osterabeti, itsasoa bere neke barik dabil lurrari mosuka-, baina etxetik gora, familiakoez ganera herria dogu, geure Euskal Herria, eta esker oneko izatea da herria danontzat handi egin dauana, herri erara goraiatzea, berak sortua, idatzia euskaldun guztiontzat –lehengo eta oraingoentzat- egina da-eta.

Guk hemen lekukoek kontatua jaso dogu –bihotzez eskerrak guztiei -. Orduko historia eta istorioak harturik, liburu txukunean ipini ditugu, argazkiz horniduan, ostean, barriro itzultzeko herriari –Lezamako herriari omenaldi bikaina antolatu dauanari eta Euskal Herri guztiari-. Lekukotasunen baten, gertau leiteke 1965ean esan eta 1964an izatea. Halan eta guzti, gu ez gara udal artxibategietara joan, ez gara tesia egiten jardun –ez letorke bapere txarto nonork hori egitea-, guk lekukoek esana batu dogu, ahalik zehatzen. Beste batzutan, orduan pasau zan zeozer jantzi, apaindu, aldatu, ikutu egin dau Mikel ezagutu ebanak. Berezkoa da jokabide hori, 25 urte ez dira hutsean joan. Denporea erloju zorrotza da. Behin honezkero, ez da orain 25 urteko oilorik bizi, ez eta orduko txakurrik bere, nahiz eta gaur be oiloak badagozan nahiz txakurrak, baina ez ordukoak.

Liburu honetan topauko dozun Mikel Zarate “Gure Mikel” da, askoren laguna, lagun ona, bizitza bete-betean bizi dauanarena; ez idazlea bakarrik, ezpada abadea, kirolaria, zinemazalea, ugerlaria, bertsolaria, mendizalea, literatur sari irabazlea, adiskidea, irakaslea, euskaltzalea bere bai.

Jenteak zabala zala dino, Nik uste, ate bako etxe iregia zala; hain bihotz handikoa non barriketa unean ate barik pasatzen zan kanpotik barrura nahiz barrutik kanpora; sutondoko kuttuna zein mendi gailurreko urruna azaltzen euskuna.

Hara Mikelen izakera gure lekukoaren erara aiez ale garanduta, beti bere ahoz kontatua, ahozko bizitasunaz eta askatasunaz, ez idatziaren moldeko esaldi luze eta astitsu hausnartuakaz:

1.- *Mikel laguna.*

“Ni lagun-laguna nintzan –Martinek. Haren laguna ez zanik baegoan, ala? –Martzelek”. (Martín Arriaga).

“Momentu bakotxean jakiten eban nogaz zelan egon eta ze berba egin. Horretarako “Crack” bat zan”. (Ritxar Zarate).

“Mikel izaten zan niretzako, ba, seme bat izatea legez”. (...) “Gure aita koiuten eban lepotik eta gure aita umetxu baten moduan egoten zan haren kontuak entzuten, ahoa zabalik”. (Miren Goitia)

“Beste aittitta bat bere etortzen zan, Bittor, edadekoa, Diputazinoan guarda, eta nire anaia difuntua. Ba, Bittor txikitua zan eta Pekere esaten eutsan Mikelek. Harekin ikusgarri pasatzen eban, egin partidatxua-eta”. (Enrique Mugarza)

Mezea domeketan emoten eban. Abade lagunak be etortzen jakozan, Karmelo-eta; Ermura edo joango zan, Markinara edo; abade mordoa etortzen ziran; bazkari bat egiten eben hementxe. (Maria Angeles Ayarzagüena).

2.- *Etxean eskolea.*

“Mikelen ama, Julia, jostuna zan. Ni sarritan egon naz bere etxean eta entzun deutsat berari kontuak kontatzen, ipuinak kontatzen, eta oso zehatz, garbi eta edertasunez kontatzen ebazan. Nik uste dot Mikeli ipuin idazle hori izatea amagandik etorri jakola, eta behar bada bere aititagandik, ze bere aitita errementaria zan, Lejarrenekoa, eta aititak be toketxo hori baeban, gauzak leun esatea, gozo, bizi esatea, grazia hori eban”. (Ander Manterola).

3.- *Idazlea.*

“Eta han presbiterioan gengozala, oraindino eleizkizuna hasi aurretik, etorri jatan Mikel eleizatik eta ikutu atzetik eta esan eustan: “Txomin Agirre saria emon deustie”. (...) “Nik neuk zer esango deutsut, uste dot horko alkarrizketak apur bat bizkaieraz egin bazituan bizitasun gehiago eukiko ebela. Nobela horrek balio handiak daukaz”. (Karmelo Etxenagusia).

“Orduan, idazle bat, bizkaitarra, batua aintzat hartzen ebana, irakaskuntzan benetan ondo finkatuta egoan gizona, idazle legez ja trebetasunak bereganatu zituana eta bide barriak urra-

tzeko prest egoan gizon bat joan jakula 46 urte gaz. Orduan, egin ebana benetan baliagarria da, baina uste dot idazle bat galdu genduala idazteko senaren oinarria galdu genduala". (Lontzo Zugazaga).

"Haurgintza Minetan" oso liburu konpletoa da, bizitza ipini eban liburu horretan". (Ritxar Zarate).

3.1.- Olerkari baino ipuinlari.

"Nire ustez, olerkari baino ipuinlari hobea da Mikel. Hau da, poesia baino bere ipuinak geldituko dirala. Poesian metri-kak-eta horreek ondo ezagutzen ebazan, baina nire ustez bere etorririk onena ipuinetan eban". (Ander Manterola).

3.2.-Idazle herritarra.

"Baina "Haurgintza Minetan", "Bilbo Irribarez", eta "Influencias del vascuence en la lengua castellana" idatzi ebazanean, ba, hori, erdaran euskarazko esakerak eta berbak daukeen influentzia idatzi eban eta nire talde osoa ibili ginan Txorierrin berbak apuntetan tabako kajetan "pirrilerak", "¿Qué llevas en el kolko?" Eta antzekoak.

"Nik uste, Mikelek beti euki dauka "herri zentzua", herriak ulertu dagiala berak esaten dabena. Orduan ez egoan hori modan; ganera orduan garbizalekeria zan nagusi". (...) "Liburu honegaz Mikel asko poztu zan ze jenteak oso ondo ulertu eban. Ganera akorduan daukat, berak esaten eban bere herriko abadeak -orduan Don Pedro Artabek- esan eutsola "Erderazkoa baino hobeto ulertu joat", eta asko poztu zan". (Karmelo Etxenagusia).

Mikelen idazlanak irakurterrezak dira gehienak. Gero bizitza suna daukie. Era askotako idazlanak ditu, baina alegietan eta ipuinetan-eta, herrikoitasun bat somatzen da. Ez da laborategi baten lan egiten dauan gizona. Ez, ez, herriko ohiturak, herriko bizikerak, herriko esaerak, herriko ezagunak, joan-etorriak, pasadizoak..., horrek guztiak sartzen ebazan eta idazten hasten zanean, herriko pasadizorik nabarmenenak eta baita apalenak sartzen ebazan". (Lontzo Zugazaga).

“Gero, Bizkaiko hainbeste txokotara joan gara, beste barik ingurua ezagutu egitearrrik, eta ezagutuaz batera hango jentegaz egon. Eta berari gustetan jakon, horrez ganera, ea zelango euskeran egiten daben han berba, ea apartekotasunik daukien horrek gauza guztiak batzen zituan gustura. Ene! Berba bi esan jeustazak horrek ezagutzen ez dodazanak, apuntau egin behar jozat”. Eta beti egoten zan batzeko prest,: espresioak, aditz molderen bat, berbaren bat...”.

4.- *Jakituna.*

“Mikelek asko ikasi eban, baita grekozko eta latinezko literatura bere eta eredu gisa hartzen zituan Esopo eta antzekoak alegiak egiteko. Beraz, kontuan hartu behar dogu hornidu egin ebalá etxetik ekarrena, baita be gero filologia ikasi eban”, (Ander Manterola)

“Hori dala-eta -Txomin Agirre saria- ja euskera batuaren bitetik sartzen dalako edo, nobelea ona zalako edo, Euskaltzaindiak egiten dau bere laguntzaile, urgazle”. (Karmelo Etxenagusia).

5.- *Dakigunetik ez dakigunera.*

Dakigunetik ez dakigunera eta jakin behar gendukeenera, lehen esan doguna. Ikasi egin behar da, baina oinarrizko arnasa galdu barik, arbolea dotoretu egin behar da, baina sustraiak sakon”. (Lontzo Zugazaga).

6.- *Bizkaiera eta euskera batua.*

“Berak esaten eban baserritik auzora, auzotik herrira, herri-tik Txorierrira, Txorierritik Bizkaira, Bizkaitik besterantza”. (Ritxar Zarate)

“Euskaldun izateko ez dogu inora joan beharrik, bizkaitarra izanda euskaldun oso izan ahal gara, baina beste leku batzuetako euskaldunekin harremana eukiteko, guk zeozer galdu be-

har dogu, eta eurak be bai zoezer galdu egin behar dabe euskerak ahal dan neurrian alkartzeko”. (Ander Manterola).

“Eta berak nahiago eban mutur-muturrean plantetea baino, bueno, gure herriak ezinbestekoa jok baturantz joatea; euskara batua benetan garrantzizkoa dok; orduan horrentza joan behar joguk, baina orain bat-batean goitik behera dana aldrebestu ez, euskerarik eukiko ez bagendu lez”. (Lontzo Zugazaga).

7.- *Bertsolari mezatan, lagun artean.*

“Batez bere afal osteko saioak ziran. Ba, beti geratzen ginan talde bat kantuan; asko kantetan eban Mikelek, baina ganera inprobisatu egiten eban. Hasi kanta bat eta gero behar bada ordu batean bertsoak inprobisatzen. Ota haretako oilarra bera zozan”. (Jesus Eguzkiza)

“Askotan ez da bakarrik burura, baita bihotzera datorrena abadeak esaten dauana mezan, eta nik uste dot hori zala lortzen ebana Mikelek, batez be Lauroetan”. (Ander Manterola).

8.- *Zine zalea.*

“Ba, esate baterako zinea asko gustetan jakon. Ni neu zinera sarritan joan naz Mikelegaz, gabaz, lanak amaituta. Ze pelikula mota? Asko gustetan jakozan nire ustez pelikula orientalak, orientalak baino horreek rumanoak, turkoak..., horreek asko gustetan jakozan eta mendikoak be bai”. (Ander Manterola).

9.- *Irakaslea.*

“Eta badakizu, Mikel Zarate sartu nuen euskal filologian eta zan pertsona jatorra eta gero..., langilea!, eta hortikan hil zan. Begira, Mikel Zaratek Deustuko Unibertsitatean ematen zituan eskolak, gero Hizkuntza Eskolan San Pedron, Deustun, gero, Derion ere ematen zituen eta...”. (Gotzon Garate).

“Irakaskuntzan irauli egiten dau bere sena eta bere euskaltzaletasuna eta orduan irakaskuntzan zaletu edo amorratu egi-

tea izango da bere helburu nagusienetariko bat. Ez irakatsi irakastearren. (...) Eta gero, ikasleen aldetik be, ikusten eben berarengan emoten ebana pozik eta gozaten ebala emoten ebala, eta horrek emoten dau ikasleengan be ikasteko gogoia eta aparteko bizitasun bat". (Lontzo Zugazaga).

10.- *Kantu egile eta kantari.*

Kantu bat dago oso sinplea dana Mikelek idatzia: "Eskerrik asko Jauna". Hori Mikelena da, eta hain ziur dakit Mikelena dala ze, uste dot lehenengoz niri abestu eustala! Bueno, abestu baino esan. Egon ginan eztabaidan: "Gauzak errez ipini behar doguz". Beraz, elizan kantetan diran kantu asko Mikelek ezarritakoak dira eta ez dira oso konplikatuak, hori, "Eskerrik asko Jauna" esaterako. (Ander Manterola).

"Eskerrik asko Jauna be Mikelen letrea da, e! Niri emozino handia emoten deustie Mikelen kantak entzuten dodazenean, ze, (...) honek kanta guztiak Euskal Herri guztian kantatzen dira". (Karmelo Etxenagusia).

11.- *Abadea.*

"Niretzako Mikel abadea zan, ze ostantzean itxiko eban, ez? Euki ebazan bere gorabeherak, baina abade joan zan bere sinismenagaitik, ze kristautasuna orduan sakon sartuta egon zan hemen, Euskal Herrian oso sakon egoan orduan". (Ritxar Zarate).

"Bere debozinoa komunikatu egiten eban; itzela izan zan. Gure aitak beragaz egotearren bizia emongo eban" (Miren Goitia).

"Baina berak abadetzarako deia sentitu eban, eta abade lanerako gogotan sartu zan seminariora. (...) Gero abadegintzan urteak joanez joanez, apurkan apurkan euskal kultur munduan gehiago sakontzen hasi zan eta hortik sakontzen beran idazle

izatea eta horrek kontuak. Baina geroagoko, bigarren bokazioa da euskararakoa”. (Lontzo Zugazaga).

12.- *Euskaltzalea.*

“Bueno, Mikelek egoerak sakon bizitzen zituan, eta... esango deusuet, edozein herritara joan eta mutiko txikitxuak edo neska txikitxuak ikusten zituanean euskeraz berbetan, pozez zorutzen jartzen zan. Baina era berean, ikusten eban gure herrietan, zuenean, Lezaman, nirean, Gamizen, behera joiala euskera kalean berba egitea, eta horrek kezkatu eta arduratu egiten eban, eta tristetu be bai”. (Lontzo Zugazaga).

13.- *Abertzalea.*

“Gailurrera ailegetan zanean, beti gauza bat esaten eban: “Gora Euskadi askatuta”, hori be beti esaten eban, gailur guztietan. “Gora gu eta gutarrak”,. Hori be beti esaten eban”. (Lontzo Zugazaga)

14.- *Kirolaria.*

“Hemen be txinga eroate egon zan eta ikusten eban eta: “Hau ez ete dot egingo nik?” eta Lezamako lehenengo lotu zan”. (...) “Eskupelota be bai. Hori eskupelotako txapelketa hil aurreko urtean irabazi eban”. (Ritxar Zarate).

“Uger be zaletasun handia eban. Itsasoa gustetan jakon ikaragarri. Gero, saltoak egitea be bai”. (Lontzo Zugazaga).

“Bai, badinotsuet, korrikolari neurri laburretan –100 metro, 200 metro- horretan bizia eta lodia zalako eta orduan ondo urtetan eban, bizitasunez, ze, 100 metroko korrikolariak 80 kilo-koak izaten dira gehienak. (...). Gero, mendiko ibilerak, eta pelotan aparteko zaletasuna eukan.(Lontzo Zugazaga).

“Eta, ba, bedarra ebagiten be sarri joaten gintzezan eta han be beti postorea egin behar. Nik ez dodala kargauko berak ebagiten dauan beste edo aldrebesetara” (...) “Ba, bai, berari

hori gustetan jakon, ganera txarrena ez, onena izatea gustetan jakon, erdikoa bez”. (Ritxar Zarate)

15.- *Irakurtze zalea.*

“Eta gero zaletasunetan esan beharko genduke irakurle amorratua zala. Irakurtea gustetan jakon asko. Eta irakurketan be gaurkotasuna beti ikusten jako. Biblia eta horrek gauzak bai, eta gero gaurkotasuna. Mikelek lehengo gizona ez eban nahi izan. Orduan, une haretan Arestiren olerkiak haegozan aurre-aurrean eta apur bat, ba, heterodoxo modura agertzen zala eta, hark fin ekingo eutsan Arestiren liburuak aztertzen eta ikusten, gaurkotasunezko gauzak bereganatzen”. (Lontzo Zugazaga).

Testuliburu egile.

“Une haretan hainbat proiektu ebazan buruan, idaztea, batez bere idaztea zan bere asmoa, eta idazkeran, bai euskereari molde barriak emoteko ardurea, eta bestaldetik, literatur testuak aztertzea, badakizue, badaukaz horri buruz idatzita liburu bi edo hiru Derioko Ikastaroetan”. (Lontzo Zugazaga).

16.- *Behargina.*

“Egin gurean egin gureagaz ito egin zala uste dot, eta stress nagusi baten sartu jakon hain lanpetuta egoteagaz apurtu egin zan, apurtu”. (Lontzo Zugazaga).

“Gero hor “Bizkaiko Euskal Idazleak” liburua idatzi eban, ze esaten eban berba asko egiten dala, baina lan gitxi”. (Ritxar Zarate)

“Ez esaten ez ekian, eta gero beste alde batetik egiten joan, bere burua zorrotzegi neurtu”. (Jesus Eguskiza).

17.- *Berbaldi asko emona.*

“Beste mila gauza be baeukazan eta ez eukan beste batzuk geunkan askatasuna horretarako. Berak berbaz berbaldi asko emon zituan”. (Karmelo Etxenagusia).

Mikel Zarate pasau da bide zidorrik bide zidor, bide gurutzetik bide gurutze, eta gu behin joanta dagoala hurreratu gaitxakez bide hegalean geratu diren kontalariei itaunak egiten. “Ikusi dozue Mikel? Pozarren hartu gaitue Mikelen izenean goazela jakitean. “Ha bai gizona!” “Gure Jaungoikoak arinegi eroran eban hemendik”. “Lagun-laguna zan, etxeko!”. Eta geu bere kontalariek berbei emoten deusien emozinoagaz xamurtu.xamurtu egin gara. Zeuk bere, irakurle, arrisku berbera dozu.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta.